3 M

# Baionako Jaun Aphezpikuaren letra, bere diocesako aphez eta fededunei igorria, eta mintzo dena Jaun Felix Faure Frantziako Errepublikako Presidentaren heriotzeaz.

---

Gure Anaia Maiteak,

Ezin ukhatua den egia: herioaren aintzinean guziak berdin garela. Nihork ezin ihets egin dioke. Herioak, bihotz-gabea, jotzen du ezker, eskuin; jotzen du gizon aphala, beharra, ez deusa; jotzen du berdin eta atsegin berarekin gora den gizona. Arte laburrik barnean eta bat bertzearen ondotik herioak ereman ditu azken bi Jaun Presidentak, oraino gazte eta kargutan zirelarik. Iduri luke herioak gure aintzindariei erraiten diotela: « erudimini « qui judicatis terram. » herriko buruzagi zaiztenak, « ikhas-kitzue bada herioak emaiten derauzkitzueten « erakhaspenak. »

Gizonak dabiltzan itzulietan, politikak emaiten dion sukharrean, ethorkizunaz egiten dituen gogoetek, egunian eguneko antsiek ez diozkate nehola ahanztarazi behar bere azken finak (chedeak.) Ezen lurraren gainean daraman behar dugun bizia aintzinetik neurritua da eta neurritik gora ezin joan daiteke. - Bertzalde, Jainkoak erraiten derauku ethorriko dela uste gabean, ohoina bezala, ochurik eginik gabe, eta eman beharko diogula condu chuchena gure biziaz, gure urhats, solas, eginkunde, gogoetaz guziez. Erran

beharko zaio Jainkoari, ongiaren eta gaizkiaren artean etzarriak, ongia hautatu othe dugun eta egin. Bartezpadakoa da, bada, eman eta berma gaiten, geroago eta gehiago, bide chuchenean, herioa dathor litakeenian ez gaiten hatchemanak izan bide chuchenik zeihartuak — et pereatis de viâ justâ.

Jainkoa, bere amodioan eta bere urrikalmenduan, ona izan da azken bi Jaun Presidenten alderat. Nahiz uste gabean bezala hil izan diren, Jainkoak urrikari izan ditu, Frantziako lehen buruzagiak zirelakotz eta Frantzia deithua delakotz bethidanik Elizaren alaba zaharrena. Azken bi Presidentek, bada, biziaren azken oren hartan, apheza ikhusi ahal izan dute. Eta barkhamendua eskaturik, absoluzione saindua izanik, gantzudura Saindua harturik, agertu dire Juje Nausiaren aintzinerat.

President zenak ederki bere herrunka bai eta gora Frantziako bandera atchiki izan du bertze erresumen artean; elgarretarik hurbildu ditu Frantzia eta Russia; eta bi herriak eta bi populuak bat bertzearen adiskide egin ditu. Lan hori eginez, beiratu duke gure herria asko nahaskeri eta hirriskuetarik.

Jainkoak, saritzat, eman dio azken Sacramenduen hartzeko dohaina. Orai guri doha haren laguntzea gure othoitzez. Haren azken hitzak izan dire egiazko giristino batenak: « Barkhatzen dut », erran du, azken hatsa emaitean. Hitz horiek ihardetsi dukete Jainkoaren bihotzean. Eta Jainkoa urrikaldu zaio.

Hortarakotz, Jainkoaren izen Saindua deithu ondoan, manatu eta manatzen dugu:

## Lehenbiziko Artikulua.

Zerbitzu-Nausi bat emana izanen da ortze-gunean, Otsailaren 23ean, 10 orenetan, Cathedralean, Jaun Felix Faure, Frankziako Errepublikako President zenaren arimaren chedeztarat. – Gehonek kantaturen dugu Meza eta Absolbia emanen.

## Bigarren Artikulua.

Baionako elizak eta kargudun, aintzindari guziak deithuak izanen dire zerbitzu hortarat.

## Hirugarren Artikulua

Baionaz bertze, zerbitzu-Nausi bat emana izanen da chede beretarat herri guzietan. – Jaun Erretorak adituko dire Jaun auzo-aphezekin zerbitzu horen emaiteko egunaren hautatzeko.

Eta gure Letra irakhurtua izanen da heltzen denetik; eta, berriz oraino, irakhurtua zerbitzuaren ondotik, Absolbia eman aintzinean.

Emana Baionan gure Aphezpikutegian, gure sinaduraren, gure harmen sinaduraren eta gure Secretarioaren contra-sinaduraren azpian, Otsailaren 18ean – 1899ean.

✝ François, Antoine Baionako Aphezpiku.
JAUFFRET

Jaun Aphezpikuaren manuz:

Lasserre, calonjea, Secretario Generala.

Baionako Cathedraleko Jaun Archipretaak iskribatzen derauku letra bat, zointan mintzo baita gizonez bakharrik egina litaken Lurderako beila batez. - Irakhurtzerat noha letra hori; eta, irakhurtu ondoan, emanen derauzkitzuet behar diren argiak eta chehetasunak. Jarraiki zaizte artharekin nere irakhurtzeari.

Baiona, Otsailaren 22ª, - 1899ean.

Jaun Erretora,

Mila zortzi ehun eta lauetan hogoi eta hamalauean, Maiatzaren hamalauan (Maiatzaren 14 - 1894) Baionako eta Mauleko Jaun Archipretrek ohu eginik, lau mila beilari, denak gizonak, denak Eskualdunak eta Eskual-Herriko eskualde guzietarik bilduak, bazoazin Lurderat eta, batean, sartzen ziren hango Eliza-Nausian. - Behinere ezin ahantzizko eguna 1894.eko Mendekozte biharamun egun hura! Egun eder horren arratsean, Jaun Erretor han ziren Jaun Erretor eta beilari Eskualdunek, bozkarioz dena gainditual, hartu zuten chedea hala-halako beila baten egitea 1899ean.

Horra non berria hedatu den Frantziako eskualde guzietarik bilduko diren gizonen beila bat moldatzen ari den, ethortzeko dena Lurderat heldu den Aphirilan. Gure Jaun Aphezpikuak ohu egiten derauku hura harat dohala, eta eia bere diocesako gizonetan badirenetz hari jarraiki nahirik

Bihotzez entzunik gure Jaun Aphezpikuaren ohua eta onharturik haren nahia, eginbide bat bezala zauku Mauleko Jaun Archipretrari eta niri, Jaun

Aphezpikuaren chede beretan sartzea, eta humek hautatu duen egunean gure beilaren egitea.

Huna bada zer derauzkugun galdetzen, Jaun Erretora: Egundik heldu den igandearat — Martchoaren bortzerat — zembait beilari gehiago edo gutiago hurbil, jakin dezakezu zombat beilari izan dezakezun zure herritik?

Badakigu, Jaun Erretora, zure lehiak ez derauküla hutsik eginen eta zure egin ahal guziez lagunduko duzula gure chedea. Aintzinetik, bada, Mauleko Jaun Archipretraren izenean, bai eta nere izenean, eskaintzen derauzkitzugu gure eskerrik hoberenak.

E. Juanchuto,
Baionako Archipretra.

Beilaz chehetasun zembait Jaun Aphezpikuak berak emaiten derauzkunak.

I. — Beilariak bidean emanen dire Aphirilaren 1ean, Astezken arratsean, biharamunean, Ortzegun arratsean itzultzeko.

II. — Orai artio baditugu zazpi train ardietsirik Compainia ganik. Gehiago behar balitz, ustea badugu izan dezakegula.

III. — Jaun Erretorak, bada, othoiztuak dira jakitea, egundik helduden igandearat zembat beilari izan dezaketen beren herritik. Igande biharamunetik, erran nahi baita, bihar zortzi, Martchoaren 6ean, jakinaraaziko diote Cantonamenduko Jaun Doyenmei zombat beilari duten; eta Jaun Doyenmek jakinaraaziko diote Jaun Archipretrari. — Zer nahi gisaz, heldu den astezken zortzikotz, Martchoaren 8a, Baionako

Archipretzak eskuetan izan beharko ditu cheheTasun guziak eta jakin zombat beilari diren herri bacotchatik.

---

Contsecratzionezko moldea Jesusen Bihotz Sacratuari, Aita Saindu Leon XIII garrenak igorria. [irakhurtua izaiteko Ezaroaren 11ean munduko Eliza guzietan.]

O Jesus guziz eztia, gizon arrazaren Eroslea, aurthik zazu, gu, hemen, zure aldareAren oinetan gaudenen gainerat (zure) begiratze on eta amultsu bat. Zureak gare eta zureak izan nahi gare. Bainan, lokarri azkarragoez zuri estekatuak izan gaitezen, huna non, egun huntan, gutarik bacotcha emaitzaz emaiten gaizkon zure Bihotz guziz Sacratuari.

Gizon hainitzek etzaituzte behinere ezagutu; bertze hainitzek, zure manuak hautsiz, arbuiatu izan zaituzte: urrikal zaite batzuez eta bertzeez, ô Jesus guziz ona. Hel-araz kitzu guziak zure Bihotz Sainduaren ganat. Izan zaite, o Jauna, ez bakharrik zure ganik behinere urrundu ez diren Sinhetstedunen Erregea, bainan, bai oraino, zu utzi zaituzten haur dohakabeena ere. Egizu hauk itzul diten leher bai lehen Aitaren etcherat, heriotze dohakabe batean akhaba ez ditezen.

Izan zaite asmaria makhurrez enganatuak edo elkhar ez aditze baten ondoan, Elizatik bereziak direnen Errege. Ekharrarazkitzu egiaren porturat eta fedearen batasunerat,

izan eta dadien laster arthalde bat eta artzain bat baizen.

Izan zaite, azkenean, asmaira zaharretan pulunpatuak daudeen sinheste gabeen Errege. Atheraazkitzu, othoi, beren ilhumbetarik eta bidaltzkitzu egiazko argirat eta Jainkoaren naustatasunerat. Emotzu, Jauna, zure Elizari salbamendua, deskantsua eta libertatea. Ardiets zotzute herrialde guziei bakhea, ordenua; eta egizu lurraren bazter batetik bertzerat, entzun dadien hitz bakhar hau: Laudorio salbamendua eman derauküun Jainkoaren Bihotzari. Ohoratua eta goretsia izan bedi mende guzietan.

Halabiz.

---

Baionako Jaun Aphezpikuaren letra,
Bere diocesako Aphez eta Fededun guziei
Igorria;
Zoinaz jakinaraazten baitiote
Michel Garicoïts Benerablearen
Auzia
Dohatsu eta Saindu izaiteko,
Onhartua izan dela.

---

Gure anaia guziz maiteak,

Gure eskerrik handienak zor diozkagu Jainkoari, gure diocesari emaiten diozkalakotz bere amodioaren seinale bereziak. Orai, oraino, behatu dio begi on eta amultsu batez.

Betharrameko Commentuan, hango Fraideen artean, sorarazi du lore eder bat, bere eskuz arthatu izan duena eta saindutasunerat helarazi izan duena.

Saindu baten egitea lan handia da, G. an. C. auzi handi baten irabaztea baino lan handiagoa. Elizaren ekhartzea erraiterat norbait saindu dela, ez da zuek uste dukezuen bezain gauza errecha. Behar dire urtheak eta urtheak nor harren gainean, sortzetik hil artio, ditezken chehetasun guzien biltzeko. Behar dire etzagutu haren urhats guziak; altchatu behar dire haren solas guziak; mintzatu ditezken gizon guziak lekhuko galdatuak eta entzunak dire. Eta urhats, solas, egintzak, lekukotasun guziak iskribuz eman ondoan, igorriak dire Erromarat. Hiri huntan, gauza guziak cheheki eta hurbildik ikhusiak dire, ez behin, ez hamarretan, bainan ehun aldiz, auzi batean bezala. Batzu mintzo dire alde; bertze batzu, aldiz, mintzo dire contra. Contra mintzo direnek altchatzen dute huts baten, eskas baten itxuria daitekena bera. Auziak irauten du urtheak. Eta, bakhan gerthatzen dena, auzia itzultzen bada saindu egin nahi dutenaren alde, huna zer gerthatzen den:

Norbait saindu dela erran baino lehenago, Elizak egiten du Dohatsu, eta ez du berehala erraiten Dohatsu dela. Cheheki behatzen dio ze saindu omenarekin hil izan denaren bizia. Eta deus, itzal bat ez bada agerkhitzen haren bizian, orduan aita Saindua mintzo da eta dio onhartzen duela auzia jakiteko holakoa gai izan daiteken dohatsu eta saindu izaiteko.

Horiek hola, 1863$^{ean}$, Maiatzaren 14$^{ean}$, Jondoni Salbatorez hil izan zen Betharramen, goizeko hiru

orenetan eta saindu omenarekin, aphez bat, aita Garicoits derizana.

Hanitzak dira eta oraino bizi dira aita Garicoits ezagutu izan dutenak. Ez bide dute ahantzia haren arpegi guziz Jainkotiarra, haren nahi zuzena eta behin hartu bide onetik ezin aldara zaitekena, haren gorphutz lerdena, haren bihotz ontasun beti berdina, haren aire handi eta berezia. Ekhartzen zituen Eskualdun motaren seinale guziak. Ezen, aita Garicoitz Eskualduna da, Izuratik haratchago, Ibarra derizan herrichkan sortua. Aphez gaztea, Cambon bicario aphur bat egon ondoan, joan izan zen Betharramera. Eta harrek ditu lehenik han ezarri Betharrameko aphez Missionestak. Nahiz aita Garicoitz Eskualdun egon izan den bihotzez eta mintzairaz, halere Betharramen daraman du biziaren zathi handiena eta han hil izan da.

Betharrameko Etchearentzat bezain ongi on eta ohore da Eskual-Herriarentzat eta diocesa guziarentzat izaitea aita Garicoits bezalako bat. Oraino ez dugu Dohatsu deitzen, are gutiago Saindu. Bainan, auzia jakiteko egun batez ez daiteken dohatsu eta saindu izan, auzi hori onhartua da eta has daiteke. Geroztik, bide hortan, lehen urhatsa egina da. Eta hori da jadanik, gauza handia. Bazinakite zembat lan, urhats, solas, paper, iskribu behar izan diren hein hortarat heltzeko! Gure eskerrak bihurtzen diozkategu lan hortan lagundu gaituzten guziei.

Gerthakari handi horren seinalatzeko eta Jainkoari esker onen bihurtzeko, Betharrameko aintzindari Nausiak izan du gogoa hirur egunez egiteko Betharraman othoitz eta Besta eder eta berezi batzu. Bihotz guziz emaiten diogu gure baimena, galdatu izan duenaz geroz. Hirur egun horiek izanen dire Uztailaren 7, 8, 9, eta

Gehon besta horietan aurkhituko gare.

Eta nahiz herri guziek ezagut dezaten gure zoccsari heltzen zaion gerthakari baliosa, on hartzen dugu Erretor guziek, Uztailaren 9<sup></sup>an eta bezperak landan, canta dezaten Te Deum eta eman dezaten Sakramendu Sainduaren Benedictionea.

On hantiak igorikitzen ditugu, G. ar. A., gure zoccsa hain giristinoarentzat, Venerable aita Garicoitsek daraman duen biziaren hatzetik.

On har azue, G. A. M. gure estekamenduaren eta gure amodioaren segurantza.

Bielle deritzan herrian egina, Confirmazioneko itzulian, Ericaren 16<sup></sup>ean, 1899<sup></sup>ean.

François, Baionako Jaun aphezpiku.

---

Gauerdiko Mezaren baimena, Sakramendu Saindua agerian emana delarik, mila zortzi ehun eta lauetan hogoi eta hemeretziko Abendoaren azken gauekotz, eta, orobat, mila bederatzi ehuneko Abendoaren azken gauekotz.

Hasterat dohan urthea mende baten azken urthea da; eta, etzaizte jakin gabe aita Saindu Leon XIII garrenak emaiten duela, horri buruz, Jubilau handi bat. Urthe berriaren bezperan, zuzen litake, gauaz jaikirik, giristinoak, ospeka, joan diten Elizarat, mendearen emailearen ganat, ahuspez eman diten haren aldareen oinetan, aurkhit diten emanen den Sakrifizio guziletarik handienean eta jar diten Mahain Sainduan,

ardiets dezatentzat laguntza, grazia, urrikalmendua.
„Ezen, liburu Sainduek diotenaz, aro hau guziz
„hoberena dugu Salbatzeko." – Ebanjelioan irakhurtzen da hamar Birjina, gauaren erdian, gan zirela, argiekin esposaren biderat. Espos hura Eliza da. Halaber, goazen, gu ere, argiak harturik, Elizari buruz.

Horra aurthengotz:

Bertzalde, nola heldu den urthean, Abendoaren azken egunean, eta gau-erdian akhabatzen baita oraiko mende hau – hemeretzigarrena – eta hasterat baitoha mende berri bat – hogoigarrena – arras zuzen izanen ere da, Elizan eginen den bilkura eder batean, giristinoek beren eskerrak bihur diozaten Jainkoari mende huntan guhian haren ganik izan dituzten grazia guziez, eta galda eta ardiets dezaten, orduan hasterat dohan hogoi-garren mendearentzat, handiagoak eta baliosagoak oraino. Ezen bazter guzietan beharrak izigarriak dire. O chala bada ongi hasten balitz mende berria.

Chede hortan, eta hasterat dohan mila et bederatzi ehun garren urthea zabal dadien Jainkoaren eta haren Seme gure Salbatzalearen laguntzarekin, eta, ongi hasirik, hel dadien bururaino, eta hogoigarren mendea hobea izan dadien bere aitzinekoa baino, gure Aita Saindu Leon XIII garrenak on hartu du aurthengotz, Abendoaren 31ean eta heldu den urthekotz, Abendoaren 31ean oraino, sakramendu Saindua agerian emana izan dadien, gauaren erdian, eliza guzietan, tokiko Jaun Aphezpikuaren baimenarekin. Zilhegi izanen ere da erraitea edo kantatzea, egun eta

Oren beretan, erraitea edo kantatzea. Sakhramendu Saindua agerian emanaren aitzinean, Meza bakhar bat. Eta, dohain berezi batez, giristinoek, Meza aitzinean edo ondoan, edo Meza artean, egin dezakete Communione Saindua.

Hazilaren 13$^{ean}$ 1899$^{ean}$

Mazella. Jaun Cardinalea.

1 Jaun Aphezpikuak iskribatzen deraukunola goan den Salbatorez. Maiatzaren 11$^{ean}$, Aita Sainduak igorri izan duen letra bat giristino guziei erraiteko mila eta bederatzi ehun garren urthea izanen dela Jubilaoko urthe Saindua. Erromakotz_

« Mendea akhabatzerat doha, dio Aita Sainduak « eta erran dezakegu ah aanzu burutik buru ikhusi « izan dugula. Eta, nola gure aitzinekoek, mende « berri bat hasterakoan, eman izan baitute Jubilao « handi bat, guk ere emaiten dugu. Holako Jubilaoko « urthea deitzen da "Urthe Saindua".

Erroma hiriarentzat Jubilaoa zabaltzen da Abendoaren hogoi eta lauetik

Aita Sainduak nahi luke, Erromarat ethortzen ikhusi, goan ditezken giristino guziak — ahal bezembatean. Urthe Saindu huntaz baliaturen gare Erromako itzuliaaren egiteko. Eta atsegin bat litake nere bihotzarentzat niri jarraikitzen bazaizkit diocesatik asko eta asko beilari. Heiekin batean goan niteke Erromarat eta elgarrekin ahuspez eman gintezke Aita Sainduaren benedictionearen errezebitzeko. Nahiz gerochago oraino mintzaturen naizen beila hortaz, halere egundik aipatzen dut, zerbait chede edo gogo lukeenak egin ditzan bere gogoetak eta har bere bideak.

Jubilao handi guzietan gerthatzen dena, Jubilaoko

indulientziaz bertzer, ezin irabaz daiteke indulientziarik, salbo bakhar batzu, Aita Sainduak berak aipatzen dituenak, eta hek ere oraino Purgatorioetako arimentzat.

2korik. Jaun Aphezpikuak iskribatzen derauku oraino nola izan duen Erromatik bertze berri bat. Huna berri hura bere letrarekin.

Lire le décret urbis et orbis du 13 Novembre qui est traduit à la page 10. . .

. . . . . . . . . . . . . . . .

Gure hitzak ongi gogoan hartu badituzue, ikhus dezakezue aita Sainduaren nahia litakela emana edo kantatua izan dadien, aurthen Abendoaren azken gauean, eta heldu den urthean Abendoaren azken gauean oraino Meza Saindua. Eta hori Eliza guzietan.

Horiek hola, huna hartu ditugun chedeak, zoinei herri guziek jarraiki behar bazaizkote:

1° Nola Abendoaren 24ean, zabaltzen baitu Aita Sainduak Erroman Jubilaoa, egun berean, Veni Creator kantatua izanen da Bezperetan

2° Erromatik ethorri izan den baimenaren arabera, zilhegi uzten diotegu erretorei Sakramendu Sainduaren agerian emaitea gauerditan, urthearen azken gauean; oren berean Meza baten erraitea edo kantatzea eta Communione Sainduaren emaitea. — Eta Meza ondoan, Sakramendu Saindua tabernaclean sartu baino lehen, kantatuko da Tantum ergo.

Gauza berarentzat baimen bera emaiten dugu mila bederatzi ehuneko Abendoaren azken gauekotz.

Her nahi den, orduan bizi bagare oraino, berriz mintzaturen gare eta solas berak adiaraaziko

Eta gure letra hau irakhurtua izanen da hitzez hitz Eliza guzietan.

Baiona, Abendoaren 18^n 1899^an

François. Baionako Aphezpikua

Ongi adiarazi behar zaio Populuari 1900^ean Jubilaoa ez dela Erromako hiriarentzat edo Erromara, urthe hortan, goanen diren beilarientzat baizen. Erromaz bertzalde, Jubilaoa guzientzat izanen da 1901^ean.

Jesusen Bihotz Sacratuaren gainean
Gure Jaun Aphezpikuak
manatzen duena.

Gogoan dukezue nola, aurthen Aita Sainduak gomendatu dioten giristino guziei Jesusen Bihotz Sacratuaren alderako debozionea. Eriaren 11^ean irakhurtua izan da Eliza guzietan Contsekrazionezko acta bat Jesusen Bihotz Sakratuari Aita Sainduak berak igorria irakhurtua izaiteko.

Geroztik eta ondoko Uztailean, Aita Sainduak othoiztu ditu munduko Jaun Aphezpiku guziak beren ahal guziak egin ditzaten Jesusen Bihotz Sacratuaren debozionearen hedatzeko eta bermatzeko.

Chede hortarat heltzeko, bi gauza zauzkigu aipatuak: 1° lehena: elizetan egitea bilkurrak eta othoitzak Bihotz Sakratuaren ohoretan Eriaren area guzian eta, bertzalde, hilabetheko lehen ortzirale guziez

2º bigo galdatua zaukun bigarren gauza: moldatzea
Jesusen Bihotz Sakratuaren confrarioak, hetan sarraraziz,
egin ahalaz, gizon gazteak.

Huna zer dion Erromako letrak.

„ Aita Sainduak badaki Jesusen Bihotz Sacratuari
„ ohore handi eta ederrak bihurtzen zaizkola, Eriaro guzian
„ asko eta asko Elizetan. Nahiz emendatu, oraino, holako
„ bilkuretara dohatzin giristinoen ospea, heien amoatzeko
„ bezala, Aita Sainduak hirur ehunetako egunen induli-
„ entzia bat emaiten diote Eriaroko bilkuretan gerthaturen
„ direnei, aldi guziez; eta indulientzia osoa, hamar aldiz
„ bederen, gerthaturen direnei.

„ „ Aita Sainduaren bertze nahia litake ikhustea
„ eskualde guzietan, toki batzuetan ikhusten dena,
„ hilabethearen lehen ortziralea berezki eta handizki
„ atchikia: Bihotz Sacratuaren ohoretan bilkurak eginez
„ Elizetan, Aita Sainduak berak on-hartu dituen
„ litaniak gora erranez edo kantatuz eta berak, oraino,
„ eman izan deraukun contsekrazionezko moldea
„ irakhurtuz. Urhats horiei jarritzen balitze giristinoak,
„ Jesus-Christo laster ezagutua litake, bazter guzietan,
„ denarentzat, zeruaren eta lurraren jabearentzat, gizon
„ guzien Nausi eta Salbazalearentzat. Eta Jesu-christo
„ bera, inkitua gizonetarik izaiten dituen ohoreez
„ eta amodiozko seinaleez, urrikari lituzke eta
„ heda laikiote bere eskua, ez muthil batzuei bezala,
„ bainan bere adiskide et haur maite-maite batzuei
„ bezala.

„ „ Bertzalde, Aita Sainduak ikhusi nahi
„ luke moldatzen bazter guzietan Jesusen Bihotz
„ Sacratuaren confrarioak zoinetan sar balitezke ere
„ gizon gazteak. Gure Salbazale amultsuak atseginekin
„ hartzen baditu ere nondik nahi heldu zaizkon

« ohoreak, guziz prezatzen eta maitatzen ditu
« bihotz gaztectarik heldu zaizkonak. Holako
« confrarioak ez ditezke izan on handi bat baizen
« gazteriarentzat. »

Haharra da gure Baionako diocesa huntan Jesusen Bihotz Sacratuaren alderako debozionea. Ezagutu duzuen Lacroix Jaun Aphezpikuak igorri zarotzuen urtean 1875ean eta Eriaroaren 1ean manamendu bat, zoinak jakinarazten baitzautzuen indulientzia osoa irabaz zaitekela, erraitean, Eriaroaren 16ean, contsekrazionezko acta Jesusen Bihotz Sacratuari. Lehenago oraino 1768an, Baionako bertze Jaun Aphezpiku batek ezarri zuen besta egun bat Bihotz Sacratuaren ohoretan. Eta badire, egun oraino, asko eta asko herrietan ere Jesusen Bihotz Sakratuaren confrarioak, ederki dohatsuak.

Gure aldian, anaia maiteak, ikhusi nahi ginituzke debozione bera eta confrarioak berak, gaztetarik bezala, indar berri baten hartzen gure artean.

Badire Jesusen Bihotz Sacratuaren Litaniak aita Sainduak on hartu izan dituenak. Hemendik harat, maiz erranen ditugu, egun ahalaz egun guziez, nola ere Sacramendu Sainduaren aitzinean izanen garenean, erranen baitugu Contsecrazionezko acta.

Bihotz Sacratu hori izan dadiela, bizi garenean, gure bozkarioa, gure bakhea, gure salbamendua; izan dadiela hiltzeko orenean, gure esperantza; izan dadien zeruan gure zoriona.

Chede hortan, manatzen ditugu segitzako gauzak.

1°. Hemendik aitzina, eta bethi, hilabethearen lehen ortzirale guziez; eta eliza guzietan emana izanen da, arratsean, Sakramendu Sainduaren benediccionea, Jesusen Bihotz Sakratuaren ohoretan.

2° Tantum ergo kantatzeko aitzinean, erranen eta kantatuak izanen dire Jesusen Bihotz Sakratuaren Litaniak.

3° Bi hilabetheen burman, Jaun Erretorek jakinaraaziko dautate nolako Bihotz Sacratuaren confrarioak dituzten herrian. Eta, gehoni, Erromarat joanen garenean, atseginekin erranen diogu Aita Sainduari Jesusen Bihotz Sacratuaren alderako debozionea hedatua eta finkatua dela gure diocesa guzian.

Baionan egina, Eguberriz, Abendoaren 25ean, 1899ean.

† François. Baionako Jaun Aphezpiku.

Baionako Jaun Aphezpikuaren Garizumako letra hointan aipatzen baititu diocesa huntarat geroz hil izan diren herriko Apezak.

François Antoine Jauffret, Jainkoaren eta Erromako Alki Sainduaren dohainez Baionako Jaun Aphezpiku egina, Diocesako Aphez eta Fededun guziei Agur eta Benedictionea Jesu Christo gure Jauna baitan.

Gure Anaia Maiteak,

Gizonaren bizia noizbait akhabatzen den bezala, hala ere akhabatzen dire mendeak: eta gure mende hau azken hatsetan da.

Gizonak hor dio Jaunkoari bere obra guzien condua; eta bere obren arabera sariztatua edo gaztigatua izanen da, mundu huntan ez bada, bederen bertzean. Bertzerik da mende entzat. Hemendik beretik jujatuak dire eta hemendik beretik on hartuak edo tzar ikhusiak.

Gauza bera gerthatzen zaiote herriei, erresumei. Egiten duten ongiaren edo gaizkiaren arabera jujatuak dire.

Jaunkoak hautatu duen azken oren hura ethorria izanen denean; iguzkia, ilhargia, izarrak eroriko direnean batzu bertzeen gainerat, nahats-mahats izigarri batean, ez da gehiago, izanen ez herririk, ez erresumik. Orduan, ez da izanen justuak baizen Jesusen eskuinean; ez da izanen gaichtaginik baizen Jesusen ezkerreko aldean.

Akhabatzerat dohan mende hau, nolakoa izan othe da gure herriarentzat. Ongia naustizen othe zaio, ala gaizkia? Ea hor zaio saria ala gaztigua?

"Azken mendea gaizki akhabatu zen: bazter guziak nahasiak ziren, gilotina bazter guzietan ikhusten zen; eta hainitzek, hobenik gabe, behar izan zuten odola ichuri. Gure mendea, aldiz, hemeretzigarrena, gochoki akhabatzen da, aita Saindu Leon XIII garrenaz benedikatua, eta contsekratua Jesusen Bihotz Sacratuari.

Aita Sainduak contsekratua badio mundua Jesusen Bihotz Sakratuari, hori egin bide du, hortarik igurikitzen zuelakotz on zerbait. On zerbait igurikitzeko, ongiak naustiu behar kuo

gaichtakeriari.

Bai, azkarki jazartzen zaiote Elizari. Denak on dire haren contra. Aintzindariak eta azpikoak, aberatsak eta beharrak elgar aditzen dute hari guduaren egiteko. Eta zer gerthatu othe da? Hanitzek uzten baizuten erlisionea bazterrerat, hari ohartu gabe ez balitz baino gehiago, ezagutza egin dute erlisionearekin, ikhasi dute, maitatu dute eta hari bihotzez estekatu zaiote. Lehenago, giristinoetarik hanitzak, gordeka baizik etziren giristino ezirinak, egun goraki, ahalgerik eta beldurrik gabe, beren burnak giristino agertzen dituzte. Horra zoin izan diren, bazterretan, erlisioneari egina izan zaion guduaren ondorioak.

Mende hau nolakoa izana den Frantzia gure herriarentzat? Baiman, iduri luke chede handi eta ederrak Jainkoak bazauzkala Jainkoak gure herriaren gainean, mende huntan. Saletan, Andredena Maria agertu zitzaioten bi haurrei; Lurden, agertu izan da Bernadeta, dotzenarat urtheko nechkari. Parisen berean, Jesusen Bihotz Sakratuaren Eliza berria altchatzen da mendi gain batean: iduri baitu handik zaintzen duela hiria eta Frantzia guzia. Mende hunek ikhusi du Jesusen Bihotz Sakratuaren alderako debozionea hedatua alde guzietarak; sakramenduak lehenago arras bakhanduak zirenak, orai ardura hartuak: noiz nahi beilak ala Lurdera, ala Saletarat, ala bertze atko eta atko capera aiputuetarat; beilak Erromarat, Jondoni Petriren hobirat, Aita Sainduaren ganat; beilak Jerusalemerat, Jesu christo bera ibili izan den lekhuetarat. Eta, bertzalde, zombat

obra berri, eta on bezain eder.

Horra akhabatzen den mendeari zor ginion azken agurra.

Eta zertaz bada mintzaturen nintzaz-kizuet aurthengo manamenduan.

Jadanik mintzatu naiz eskualde hautako Sainduez, gureak hobeki deitzen ditugunak, zeren gureak baitire sortzez, eta bederen gureak gure herrietan bizi eta hil direlakotz.

Erran dugu, joan den urthean, gure anaia maiteak, zer den parropia eta zer den erretora edo herriko artzaina bere populuaren erdian. Erretorak, elizak eta giristinoek egiten dute parropia. Eta zembatenaz erretoraren eta giristinoen amodioa elgarrentzat handiagoa baita, hambatenaz hobeki doha parropia.

Eta aurthen, gure diocesako historioaren osa-tzeko, bizi direnez mintzatu ondoan, diocesa huntan, gure hunat ethorriz geroz, hil izan diren aphezez mintzatu nahi ginuke.

Ez ditugu hemen aipatuko Eskual-herriko Aphezak baizen:

(1891) Jaun Lahtharet hila 1891ean. Aphez gaztea, Baionako Seminarioan, aphez-gaien eskola emaile izan ondoan, Baiona San Andreseko erretor hautatua izan zena. Utzi du erretor handi baten orhoitzapena. Nola, bere ustez, eritasunak ez baitzion uzten bere karguaren ongi bethetzeko ahala, utzi izan zuen erretorkua eta geroztik, fraideen erdian, bizi izan zen bertze fraide bat bezala.

Urthe berean, hil da, Hiriburuko Jaun erretora, Jaun Bastres. Herri berean egon da

36 urthez, herri guziak ongi ikhusia eta maitatua, bihotz ona eta emailea; atseginetan eta nahigabeetan beti berdina Zagoena; guziak ongi hartzen zituenak irria ezpainetan.

1892ean, hil zen Donibane Garaziko Jaun Belzaguy Doyena, Aphez Eskualdunen eta Eskualdun guzien artean toki handia zaukana. Argitua eta jakintsuna zen. Aphez lagunek askotan galdegiten zituzten haren contseiluak; hauk segituz, bethi ongi athera izan dire. Lanari ez dio behinere amor eman. Berritu du herriko eliza; eta, hil baino lehen, egin du freren eskola berri bat. Lanak higatu du eta, behar baino lasterrago eraman du hobirat.

Urthe berean, hilzen da Salles, Marchuetako Jaun Erretora, dena su eta khar zena, herria ahurrian zaukana. Huntaz erran zaiteken, bizirik hila zela; ezen gorrik oinazeek hartu zuten; luzez atchiki zuten beren aztaparretan, eta oinaze luze eta dorphe hek jasan zituen pairamendu handienarekin.

Oraino, urthe berean, hiltzen Jaun Landerretz Sarako erretora. Aphez bizkhila, ernea, ez da behinere geldirik, alferrik egon. Ondotik utzi du erretor handi baten orhoitzapena. Asko lan egin ditu Elizan; aphez-etche berri bat egin eta sesoren eskola. Segur ez dela Jainkoaren aintzinera agertu, eskuak hutsik, bainan, bai, obra onez betherik.

1893ean, hilzen da, Jaun Elgart, Baigorriko doyena. Bethi osasun handikoa izan ondoan, betbetan, atsitzen da. Ikhusten du herioa hurbiltzen; eta ez da hobeki baizen

preparatzen hiltzerat. Agonia luze batean erakhusterat eman du nola hil daiteken gizon justua. Eta, bizi zelarik, Jainkoaren laudorioak kantatu ondoan, bere boz ederraz, kantatzen ditu zeruan boz beraz.

Orduchean, hiltzen da Jaun Ithurria, Ainhoako Jaun Erretora, egiazko Jainkoaren aphez, bihotz bero eta ona, guziei ongi egiterat ekharria. — Bizi luze eta ederra izan du Landalde aphezak. Bardosen zagoen erretor. Eta ez du dembora galdu. Barnez edertu du Eliza; berdin edertu du kampoz ere, ezkila dorrea eginez eta han ezarriz bi ezkila eder. Eta, nola, azkenerat, eritasunaz ezindua, ez baitzezaken urhats handirik egin, ~~bezeren~~ predikuak utzi egiten zituen, ari zen cofesatzen eta othoitzean zagoen.

Urthe berean oraino eta buruilean hiltzen Darrigol Apheza, Milafrankako erretor izana 18 urthez. Iduriz zelarik azkarra, gaitz batek, uste baino lasterrago, eraman zuen hobirat.

Urthe berean, Eskual herriak galdu zuen bere Aphezetarik argituenetarik bat. (Lapeyre) Azamendu haraiko apheza zen. Eskola handi emaile egon ondoan Baionan, Jaun Aphezpikuak egin zuen Bidarteko erretor. Harrek zituen bidaltzen Lurderat, urthe guthiez, Donibaneko aldeko beilariak. Aphezen confarentzen aintzindaria zen. Itzango gazterik hil izan da, utziz bere herriari liburu bat Eskuaraz eginez.

1895ean, hil zen Jaun Labourt, Baionako Cathedraleko archipretra. Hila hatzeman zuten bere ohean, S. Josephen besta egun goizean.

Haren adimendua ernea zen, haren jakitatea hedatua zen, gogo ona eta azkarra zuen, eta behin hartu bidetik etzen aldaratuko. Obra handiak hasi ditu, eta atseginekin ikhusten dugu haren ondokoarentzat gehonek hautatu izan dugunak ederki segitzen dituela obra berak.

1895ean oraino, hil izan da Jaun Hta. Cambokoa semea eta Espeletako doyena. Buru onekoa zen, eta nahiz eztia eta gozoa zen bere solas eta egiteko guzietan, bermatua zagoen Elizaren erakhaspen guzietan. Dohain horiek erakhusterat eman zituen Seroren eskola egin zuenean. Jainkoak sariztatu nahi zuen bere aphezoa, zerbitzari onari agindu dion saria emanez. Eritasunak hunkitzen du, eta luzez eri egon ondoan, saindoki hiltzen. — Berak, bizi zelarik, galdatzen zuen bezala, hil da larunbat batez Andredena Maria egun batez.

1896ean, hil izan da Sarako erretora, Jaun Ithurry, Camboko Bicario ohia: gizon ona, simplea, lagunoa, zuzena eta guziz maitagarria. Haren ganik hurbildu izan diren guziek, eta hurbildik ikhusi eta ezagutu duten guziek ezin zuketen ez maita, hain zen berenaz maitagarria. Eskualduna, Eskuarari handizki estekatua zen, lan handiak eta ederrak egin ditu eskoarara mintzairan eskuararen gainean. Lan horiek emeki emeki bilduak izanen dire liburu batean.

Luzegi litake hemen aipatzeko ezagutu eta hil izan diren apezak, gu hunat ethorriz geroz. Ez nahiz Jaun horien izenak ahantziak izan diten, hartu ditugu iskribuz eta ezarri

monamendu huntan. Eta hortan ez dugu bertze choderik izan baizik eta uztea gure ondotik ethorriko direnei aphez on batzuen orhoitzapena.

• Aphez horien bizia etsemplu bat da ez bakharrik aphezentzat; bainan oraino fededun guzientzat. Guziek badukegu zer edo zer irabazi heien etsemplutik, heien biziaren arabera moldatuz gurea; hek bezala othoitzari jarrikiz, eta bethez giristino bati dohazkon eginbideak. Ez ditugu bada gogotik galtzera utzi behar herioak emaiten derauzkun erakhaspenak; erakhaspenak direnak bereziki zuen Aphezpikuarentzat. Gure aintzinekoko Jaun Aphezpikua 58 urtheetan hil izan zen. Gehienek, 57 urthe ginituen hunat ethortzean. Eta badakigu aphezpikuak ez direla hanitz zahartzen. Itxuri guzien arabera, gure bizia ez daiteke luzea izan. Hamar urthe huntan bada ekharzen dugu 5 calonjeen dolua; 6 archiprêtreen dolua; 11 doyenen eta bertze 140 erretoren dolua. Heriotze horiek erraiten derauzkute goraki gure bizia zoin den ez deusa eta for beti ernerik eta atzarririk egon behar garela, ezen Jaunaren deia ethorriko zauku guti uste dugunean.

Baionan emana

François, Bayonako Aphezpikua

Erromako beilaren gainean, Jaun Aphezpikuak iskribatzen derauku:

Aita Sainduak deitzen ditu, aurthen, Erromarat, jubilaoaren irabaztera, beila hori egin dezaketen giristino guziak. Atseginekin, ikhus ginitzake gure meneko diren herrietarik giristino andana bat beila horren egiten gurekin batean. Atseginekin eman nintake holako beilaren buruzagi; atseginekin hel nintake heiekin Erromarat eta eman nintake Aita Sainduaren oinetan.

Indar handi batekin Erromak deitzen du bere ganat Aphezpikua. Handik du hartzen bere bothere guzia; handik ditu arimen bidaltzeko behar dituen argiak. Aphezpikua, lau urthetarik, badohe Erromarat Aita Sainduaren ahotik hartzeko behar dituen contseiluak eta ere Aita Sainduari erraiteko bere amodioa eta bere obedientzia.

Bainan, aurthen, badugu bertze arrazoinik Erromarat joateko. Aurthen, Erroman irabaz daiteke jubilaoa.

Badakizu badirela gure herri bakhar batzuetan ur onak, asko gaitzetarik sendatzen dituztenak. Mirikuek diote ez dela bardin ur onen datza urrunera igorriak direnean eta heien edatea tokiaren gainean. Tokiaren gainean indar gehiago, bothere gehiago dukete. Ur onek bere ona egiteko bada, diren lekhurat joan behar da, bidean emanik, eta behar diren gastuak eginik.

Halaber, gure arima, dituen gaitzetarik senda dezaketen ur onak gerthatzen diren, aurthen, Erroman. Heldu den urthean, jubilaoa irabaz daiteke gutietan; bainan nork dio helduko garela heldu den urthe artio. Eta Erromako beila egin

dezakenetarik, batzuek besterik ez othe dute
egin.

Beila bat abiatuko da Maiatzaren 11ean
Eolesatik eta egonen da Erroman 9 egun. Eta
gazteo guziak, bidekoak eta egoitekoak helduko
dira 150 liberetaraino.

Gure nahia litake Erromarat joatea
gure herriko gizon andana batekin . . . . . .

.

Baionako Jaun Aphezpikuak, Erromako
beila eginik,
Bere diocesako aphez eta fededunei
iskribatzen dioten letra.

Gure Anaia Maiteak,

Erromatik doidoia ethorria, berriz
emaiten gare bidean hasi ginuen Confirmazioneko
itzuliaren segitzeko. Erran ginautzuen joaten ginela
Erromarat, beilari bezala, jubilearen irabazterat. Bidean
amaitearekin galdegin ginituen zuen othoitzak.

Orai Erromatik itzuliak, ezin egon gaitezke ichilik.
Gure bihotzak gainditzen du bozkarioz, atseginez, han
ikhusi ditugun gauza ederrez. Menturaz zuen herrietan
entzun dituzue Erromako beilariak, aphez ala bertze, erran
dautzuetenak ikhusi dituzten gauza espantigarriak.

Gizonaren mihia ez da gai erraiteko han ikhusi
eta entzun ditugun gauzak. Eta behinere ezin erranen
dugu, oren gocho eta ezin ahantzizko hetan, gure
bihotzetik iragan dena. Aita Sainduaren hirian
ginen. Gure begiz ikhusten ginuen haren dagoen

Palazioa. Baginakien palaziuko zoin leiho gibelean zagoen lanean edo othoitzan. Batzuetan iduritzen zaukun zeruak berak zabaltzen zirela eta zerutik zerbait ikhusten ginuela.

Jondoni Salbatore izan da guziz egunik ederrena. Aroa ederra zen: zeru-zola urdin, iguzkia bere ederrenean. Goizeko lau orenetako, beilariak eta hiriko jendeak bazoatzin alde guzietarik Jondoni Petriren Elizari buruz. Sei orenetako aintzinean den plaza handia jendeez ofbetthea da eta jendea bethi heldu. Ordukotz plaza bethetik zen. Koka ahala eta ceremoniak etzuen hasi behar 8 orenetan baizik.

7 orenetan, zabaltzen dire Jondoni Petriko atheak. Zertako hoimbertze jende? Zert zeremonia othe zen bada Jondoni Petriren Elizan?... Aita Saindua jautsi behar zuen Elizarat; eta, han, aita saindu bezala mintzo zelarik, erran behar zuen, Jean-Baptiste La Salle, apher Frantseta, Freren ordenuaren egilea, Saindu dela.

8 orenetan, sartzen dire lerroan fraideak, Erromako congregazioneak beren bandierekin, apezak, gero 300 apherzpiku, archapezpiku eta cardinalak. Denen buruan, agertzen da tronu bat bezala, gizon guziez goragoa. Tronuaren gainean jarririk zagoen, jauntzi churitan, gizon zahar bat. Hura da aita Saindua. Garreatzaileak heldu dire emeki, emeki. Ordu hortan, han bildurik zauden 80.000 gizonek ikhus zezaketen beren aita ona. Eta aita Sainduak, irri ezti bat ezpainetan, eskua altchatua, benedikatzen zituen bere haurrak.

Izan dugu ere bertze atseginik. Hurbildu gare Aita Sainduaren ganik, ikhusi dugu eta harekin egon gare. Mendekoste eguna zen

Aita Sainduaren oinetan nindagoen denboran, nere diocesa guzia nuen gogoan, eta zuen guzien izenean eman izan diot zuen amoina Aita Sainduaren eskuetan bildua. Milesker erraiten derauzkuet eta denak benedikatu zaitutzte.
Mintzatu zaut ere Frantziaz amodiorekin, erranez zer egin behar ginuzke nahi balin badugu gure herria gora oraino ikhusi.

Eta nahiz gure eskerrak bihurtu Jain-koari egin dugun beila onaz, bezperetan, Sacramendu Sainduaren Benedictionea eman aintzinean, kantatua izanen da Te Deum.

Baionako Jaun Aphezpikuaren Letra Garizumako
Letra horrentan aipatzen baitu nolako izan den lehenago, eta nolakoak den zertan den gure Diocesa huntan Jesusen Bihotz Sakratuaren alderako Debozionea.

G. Anaia Maiteak,

Hogoi garren mendea hasia da. Mende huntan, aintzinakoetan bezain ongi, gudu bera izanen da: gudua ongiaren eta gaizkeriaren artean, egiaren eta gezurraren artean, berthutearen eta bizioaren artean. Zorionez! gure sortzeaz, gure bataioaz, segitzen dugun giristino biziaz, ongiaren, egiaren eta berthutearen aldeko soldadoak gare. Bainan, soldadoak, seurat dohazenian, jakiteko nola ibil, behatzen dio banderari; eta banderak bidaltzen du

Bazuen lau ehun (400) urthe Jesu christo hil zela gurutze batean eta zerurat iganik. 400 urthe hetan, lurreko aintzindari gaixtok, izan ziten

erregé, imperadore edo zoin izendatakoak, etsaukaten bertze gogorik, bertze chedeik, Jesu-Christoren erlisionearen hiltzea baizen. Beren chedetarat heltzeko, hartu zuketen biderik hoberena: preso altchatzen zituzten eta, gero, hilaraazten giristinotzen ziren guziak. Beren ustez heltzekoak ziren laster beren chederat. Horra non, egun batez eta egun bethean, agertzen den zeru-zolan gurutze bat, handia, ederra, dena arrajosua. Gurutzearen inguruan irakhurtzen zitazken hitz hauk: « In hoc signo vinces. » Seinale hunekin, garhaituko duzu. Ondoko gauan, Jesu-Christo agertu zitzaion Constantin, emperadore gazteari, oraino pagano zena eta agindu zion bere etsaien garhaitzea, nahi bazuen, bere aldetik, ezarri, bere banderetan, gurutzeak, agertu ziren hitz berekin. Imperadoreak on-hartu zuen. Halaber egin zuen. Eman zen bere armadaren aintzinean; joan zen etsaei buruz garhaitu eta porroskatu zituenak eta eman zion bakhea Elizari, sortuz geroz ezagutu etzuena.

Geroztik, iragan dire 16 ehun urthe eta, egun lehen bezala, Elizak aintzinean ditu lehenagoko etsai berak. Ez, ez dute hil nahi odolean, bainan hil nahi lukete bertze gisaz: trabatuz bere egitecoetan; trabatuz bere urhatsetan; tiro khenduz emeki, emeki gizonen gogotik eta bihotzetik. Eta aithor egin behar dugu, orai artio, ondikotz! sobera ongi doazitha beren lan hortan.

Bainan, horra non A. J. Jesu-christok, aita Sainduaren artekotasunaz, akhusirik mehatchatzen gaituzten ezurrite guziak, agertzen derauku bandera bat bandera berri bat, aginduz hari jarraikitzen zaizkoten guziei azken hitza beren etsaien gainean.

Duela, bada, bi urthe, Aita Sainduak zioen
hitzez hitz: « Gure egunetan, agertzen zauku
« bertze seinale bat, guzietarik laguntza hoberenekoa,
« baliosena, zoina baita Jesusen Bihotza:
« ezar ditzagun haren baitan gure esperantza
« guziak. Harri behar zaio galdatu eta haren
« ganik igurri dezakegu gizonen salbamendua.

Etzaizte jakhinik gabe Jesus Christo
agertu zitzaiola, duela 300 urthe, Margarita
Maria deitzen den serora bati. Eta hunek, Jesusekin
solasean egon ondoan, erran zuen: « Jesusen Bihotz
Sakratua da Frantziaren begiratzaile guziz bothereduna.
« Eta egun batez erreginatuco du Frantzian, Satanen
« eta Satanen idurikoen guzien bortchaz. »

Bertzalde, Jesusek berak eman zion serorai
mezu hau: « Zoazi, nere haurra, zoazi eta
« jakinarazu Frantziako aintzindariari nere nahia
« dela nere Bihotza nausi izan dadien haren
« jauregian; nere Bihotzaren iduria ekharria izan
« dadien herriko banderetan; eta orduan, bera nausituren
« zaizko erresumako etsaiei eta Elizaren etsai guziei.

Jainkoa gisa hortaz mintzatu denaz geroz,
confiantzia hartu behar dugu. Jainkoaren gaizkiaren
contra galdatzen derauku gudua, ez da gudu bat
zointan baita odol ichurtzea. Gaizkiaren contra
gudukatzea da, gure urhats, solas, egiteko guzietan
ongi egitea eta etsemplu on emaitea; obra onak
egitea, ongi eta gero eta hobeki, gure erlisionearen
ezagutzea, harri jarraikitzea, othoitz egitea eta
Jesusen Bihotz Sakratuaren debozionea.

Aita Sainduak baitezpada, nahi du Bihotz
debozione hori hedatua bazter guzietarat, hortarik
atheratuko delakotz bakhea Elizarentzat eta salbamendua

guretzat. — Chede hortan, Aita Saindu(a)k hiru gauza galdatzen derauzku. — Lehena: Eriarean gurian, othoitz bereziak eginak izan zaizkon Jesusen Bihotz Sakratuari. Bigarrena: hilaren lehenbiziko ortziraleetan guziek, ceremonia berezi batzu eginak izan diten Jesusen Bihotz Sakratuaren ohoretan: egun hartako Communionea bertzalde, Litanien kantua eta berak eginikako consecrationeazko actaren irakhurtzea. Hirugarrena: Aita Sainduaren nahia litake izan diten muthiko gazteen Congregationeak Jesusen-Bihotz Sakratuaren ohoretan.

Ez uste izan Jesusen-Bihotz Sacratuaren alderako debozionea oraikoa den. Eskuetan ibili ditugu Aphezpikutegiko paper zaharrak; eta gure begiz ikhusi dugu aspaldikoa dela gure eskualdetan.

Berrehun urthe hautan Baionatik iragan diren Jaun Aphezpiku guziek beren ahalak egin dituzte debozione beraren alde, haren hedatzeko, confrarioak azartzeko herrietan.

Gutarik hanitzek ezagutu dugu Lacroix deitzen zen Jaun Aphezpikua. Huna zer zion 1875ean:
« Atseginekin ikhusi dugu debozione hori gero eta
« gehiago hedatzen. Bainan, guziz maite duguna
« da erraitea nola 23 urthe duela consekratu
« zaituztegula Jesusen-Bihotz Sakratuari, agerian,
« zeremonia publico batean.

Geroztik, Jaun Aphezpiku Ducellier zion 1884ean:
« Debozione hori ez othe da bethi hedatuz eta emendatuz
« arimen on handitan. Eta ez othe ditugu ikhusi haren
« medioz, asko bekhatoros handi Jainkoaren alderat
« itzultzen?

Eta gehiago, aphezpiku bezala, ethorri garenean

Diocesa huntarat, gure chedeerik handiena zen debozione huntan finkatzea zuen bihotzetan. Eta hilabetheko lehen ortziral guziez, artha dugu Cathedralerat joateko, ora egun hartako Ceremonietarat.

Zer dugu bada egiten Jesusen Bihotz Sakratuaren ohoretan?

Gure eskola, commentu eta Seminario guzietan, bizi direnek egun bacotcheko obra guziak offreitzen diozkate Jesusen Bihotz Sacratuari eta diote guziak nahi dituztela egin haren ohoretan. Etche horietan egiten, gutarik bacotchac egin dezake hainbertze bere etchean. Goizean, eguna hastearekin, bacotchak offri diozkala Jesusen Bihotz Sakratuari bere eguneko lan, nekhe, izerdi, obra guziak.

Bertzalde, asko etcheetan, athearen gainean, agerian emana da J. Bihotz Sakratuaren idurià. Eta erran dezakegu ez dela Elizarik egun J. Bihotz Sakratuaren potretik gabe.

Eta zer erran hilabetheko lehenbiziko ortziralaz? Badakigu — eta hori da gure bihotzarentzat atseginik handiena — badakigu herri guziak atchikiak direla egun horri. Badakigu herrietan presuna ezkonduek eta bereziki presuna gazteek artha eta lehia dutela, egun hortan, Sakramenduetarat hurbiltzeko. Hanitzek egin eta egiten dute bederatzi lehen ilhabetheko lehen ortziraletako communionea, J. Bihotz Sacratuaren ohoretan. Bederatzi communione horiek egin-ez dutenek, lehia ditela egiterat.

Egiazko su berri batek hartu ditu bazterretan giristinoak J. Bihotz Sakratuaren alderat. Ez dezagula gogotik gal Jesu-Christok berak galdetu duela debozione hori, erranez horri josteko

Dorin gutick on handiak izanen ditutzela, beren behar guzien araberako laguntzak.

Gure anaiak,

Bazterrerat eta urrenerat behatu eta, dena beltz ikhusten dugu. Non-nahi gaichtakeria; non-nahi tzarkeria; non nahi nahaskeria. Ez dugu aditzen mehatchurik baizen. Herri bereko semeak, ama beraren umeak, elgarri behatzen dugu etsaiak baginé bezala. Nahi duzue bakhea egin? elgar maitatu? beha diozue Jesusen Bihotz Sacraturari. Horra bandera zoinari giristino gutick jarraiki behar baitiote.

Gero gutarik bacotchak bethe ditzala giristino bati dohazkon eginbideak: bere othoitzak egin ditzala egun guziez; igande egunak beira ditzala, lanetarik urrunduz, Meza entzunez, bezperetarat ibiliz, burhasoek eman ditzatela etsemplu ona beren haurrei, gazteek beren gazte lagunei

Eta gure aurthengo Manamendua akhabatzearekin, othoizten zaituzte, G. Anaia Maiteak, communia dezazuen hilaren lehenbiziko ortziralé gutick. Eta gai hortarat lehiatzeko, Aita Saindual emaiten aurthen, communiatzen dutenei indulientzia oso bat.

Gure Anaia Maiteak,

Urthe guziez, atsegin bat zauku zuen herrietarik ibiltzea confirmazioneko Sakramenduaren emaiten. Orduan, hurbilagotik ekhusten zaituztegu. Zuen Erretoretarik adiken ditugu zuen berri chehe guziak.

Aurthen ibiltzekoak gare Ortheseko eskualdeetan. — Jadanik zuen herriak ezagutzen ditugu. Gure begiz ekhusirik, badakigu nolakoak diren zuen Elizak, kampoz eta barnez: batzu ederrak, bertze entrealekoak, bertze batzu oraino pobreak; bainan gehienak zilharra bezain garbiak. Badakigu zuen herrien historioa; zer izan diren lehenago; zer diren orai.

Bertzerik jakin nahi ginituzke orai. Gure itzulia eginen dugunean zuen herrietan, adi ginezake, atseginekin, Jauna Erretora mintzatzen Elizako gauzez, Elizako urhatsez eta chehetasun guzietan sartzen: herriko jendea jarrikia othe den Sakramendueetarat, Igandetako Mezarat, Meza Nausirat, bezperetarat. Atseginekin adi ginezake populua jarraikitzen dela Bezperetarat; Elizan guziek kantatzen dutela; haurrek ez dutela Catichima huts egiten; eta ederki ihardesten dutela. Jakhin ere nahi ginuzke zertan diren Confarioak eta Congregazioneak; eta confarioetan eta Congregazionetan sartuak direnen nombrea.

Bainan, solas horiek izan behar litezke egiaren araberakoak, eta ez ezf espantuzkoak.

Berri onak atseginezkoak dire. Herri batean, Jaun Erretor batentzat berri onen ondoan, badire ere ~~berri~~ tcharrak, bihotza zaurthurik uzten dutenak. Berri onak bezala, tcharrak ere nahi ginituzke ezagutu. Horra nola: debozione eskasa; lehenagotik hunat Elizako urhatsak bakhantzen ari othe diren eta zer izarian; herrian gerthatzen diren eskandalak, nahasmenduak, aztarekoak. Berri horiek zaurthurik daukate artzainaren bihotza, zeren bihotzminik gabe ezin ikhus baitezake nieneko diren arimak galtzeko bideetan dohatzila.

Badire bertze bihotzminak apezarentzat. Zuen etcheetan sartzen diren gaitzak, egin diren kalteek ihardesten dute, biziki, haren bihotzean. Zuen doluak dolu ere dire harentzat. Hila herrietan hobi baten gainean landatua den gurutze berria, landatua ere da haren bihotzean.

Horra, gure itzulietan, hemendik harat, jakhin nahiko ditugun berriak.

Atsegin bat balin bada gurezat gure itzuliaren hastea eta zuen berriz ikhustea, ez gare bihotz-minik gabe. — Aintzinetik badakigu lehiarekin ethorriko zaizkela gure biderat; amodiorekin errezebituko gaituzuela zuen herrietan. Zuen fede azkarraren ikhustea gure atsegin handia izanen da. Bainan, gogorat ethorriko zauku, oren berean menturaz, bertze toki batzuetan, bertze biltzar batean, blasfemiozko solasak erranak direla, gora, agerian, Saindoaren, Elizaren contra, herrian eta munduan guzian, ondikotz! ihardetsiko dutenak. Hori izanen da gure bihotz-mina. — Ikhusiren dugu zuen khar saindua; ikhusiren ditugu gizonak eta emazteak, ospeka, mahain

sainduetan: hori izanen da gure bozkarioa.
Bainan ezin ahantz dezakegu nola ahko tokietan gure Elizak arraotuak izan diren, tabernacle sainduak idekiak: hori izanen da gure bihotzmina — Zorionez, gure campagnak daude oraino atchiak beren sinhesteari, Jainko legeari; hori gure atseguina da. Bainan, zombat hiri, bazterretan, urruntzen ari direnak erlijioneak manatzen dituen urhatsetarik: eta hori da gure bihotzmina.

Aurthengo Azulia hasteko bezperan, horiek dire gure gogoan erabiltzen ditugun gogoetak: batzu bozkariozkoak, bertze batzu ilhunak. Ikhusiko ditugun herrietan, gure solasak berdinak izanen dire. Erranen dugu: beira zaizte mchachu gutietarik, mendekio gutietarik, nahasmendu gutien erdian, egon zaitezte estekatuak Jainkoari, Elizari, eta bethi bethezkitzue giristino bati dohazkon eginbideak.

Nahi badugu bakhea ikhusi Elizaren eta Herriaren artean, behar dugu othoitz egin. Othoitz egiten ez badugu, solas guziak alferretan izanen dire. Jainkoak berak erran baderauku, elgarrekin bildurik, presuna batzuen othoitza, elgarretarat bilduak direnean, onhartzen duela, nola ez othe ditugu entzunen herri batetako othoitzak.

Horra zertako aurko gendeen gogorat ethorri zaioten bertzela behar zela egin, heldu den Aphirilan, gizonen beila bat Lurdera. Erran dugu lehenago ere: giristinoa soldado bat. Bainan giristinoaren o harmaa othoitza da. Bertze harmek colpatzen dute eta hiltzen. Othoitzak, aldiz, sendatzen du eta salbatzen.

Nahi lukete, bada, bildu Lurderat, Frantziako eskualde guzietarik beilariak, ospeka, uhaurrika, gizonak bakharrik. Eta han, Lurdeko harpe Sainduaren oinetan ahuspez emanik, galda diozaten Andredena Mariari beha diozan amultsuki Frantziari, eta begira dezan Frantzia mehachatzen duten izurrite guzietarik.

Goan den urthean, Erroman ginen demboran, Aita Sainduaren oinetan, hartu ginuen chedea egitea aurthen bertze beila bat. Gure begiz ikhusi nahi ginuen, Jesusen sor-lekhua; iragan izan zen tokietarik iragan nahi ginuen. Belhaunikatu nahi ginuen Calbarioko lur sainduaren gainean.

Gure bizitzko beila akhabatu baino lehen, Lekhu-Sainduetako beila egin nahiko ginuen. Asko arrazoinen gatik ezin egin dezakegu gogoan hartu ginuen beila. Bainan, bederen, eginen dugu Erromako beila

Nahi dugu gure letra hau irakurtua izan dadien diocesako Eliza eta capera guzietan.



Cœur Sacré de Jésus, je me consacre entièrement a Vous,
protégez l'Église contre ses ennemis,
ayez pitié de la France
et faites que je Vous aime chaque jour davantage.



Vue du chantier à 70 mètres au-dessus du sol, prise le 3 août 1898. Nos ouvriers font cette année alternativement le métier de poseur et de sculpteur, et taillent nos écailles en attendant qu'ils puissent monter plus haut.

## Azken solasas.

Egun hau dire, berexiki, graziazko egunak
Zombait egunen buruan, Jesus sorthuren da Be
emeko heia batean. Gogoz egin dezagu Bethleemeko
bidea ... Bethleemeko beila. Sar gaiten heia erron
hartan. Eta, han, xokho batean, mañatar batean
ikhusiren dugu haur sorthu berria. Nigarrez dago
hotzez; gauza guzien eskasian da. Haur hura no
othe da? Nor den? Haur hura da zeru-lurren
egilea eta jabea? Nor den? Haur hura da gure
Jainkoa. Ethorri da guri bere amodioaren erakhustek
Chede hortan, apaldu da, penatu da, genamendu hand
ezarri du bere buruа. Ikhas dezagun bada Jesusi
amodioaren erakhustekotan, jakin behar dugula
penatu eta genatu. Genamendurik gabe ez zait
izan egiazko amodiorik.

Goazen bada haurrak, gazteak
amak; goaze
emeko heian
amodiozko
maiteari ala

A. M. D. G.

Emana Abendoaren 18an – 1898)

Quatrième Dimanche de l'Avent (sur l'évangile du jour)

G. M.

Lurreko erregeak, edo aintzindari eta kargudun handiak sartzen direnean, lehen biziko aldikotz, hiri batean, bideak zelhaitzen eta garbitzen dire eta bazterrak emaiten dire arrima ederrenean. Ez ahal bide zen artha gutiago behar Jainkoaren Semearentzat, errege guzien erregea, aintzindarietan lehena, nahico izanen duenean ethorri mundurat. – Bainan, Jainkoaren Semeak ez du galdatzen celhai diotzaten bideak eta arrima bazterrak. Bakharrik galdatzen du garbi-garbiak dautzatela bihotzak hura ethorri deneko. Chede hortan, Jainkoak bere aintzinean igortzen du Jondoni Baptista; eta hunen lana izanen da penitentiaren predikatzea ez bere hitz sarkorrez bakharrik, bainan gehith bere ara ederrez.

Irakhurtzen dugu egungo Ebangelioan, nola Jondoni Baptista, borthutik athera eta camelu ilez jauntzia, ethorri zitzaioten bere herritarrei, erraiten ziotelarik: „ Ethortzen den Jaunari garbi diozue bidea. Jadanik „ haizkora ezarria da zuhaitzaren erroaren gainean „ eta mozkinik ekhartzen ez duen ondoa izanen da „ ebakia eta sura aurthikia. Egizue bada penitentia.„

Jondoni Baptistaren hitzek indar handia zuten. Juduen gainean. Etzuten gogotik galdua haren sortze miragarria; bazakiten nola borthuan eramen zuen haurtasuna eta gaztetasuna. Behatzen ziotén bertzeak ez bezelako gizon bati bezala.

Ah! G. M., ongi ethorria litakeela gure demboretan, Jondoni Baptista bezelako propheta bat, hura bezelako

mintzazale zaharra, giritasunean sartuak eta beren arteari emanak dauden gizonei ohiu egin diotzakena: « Bihotz gogorrak, noiz artio bada egonen othe « zaizte bide makhurretan? Itzul, itzul bada, lehen « bai lehen, Jainkoaren alderat. Egizue zuen hobenen « araberako penitentia, eta galduak zaizte. Jondoni Baptistaren solasak suzkoak ziren eta aditzale guziak penitentiari emaiten ziren.

Jondoni Baptistarekin batean erraiten derauzkuet: « Jaunaren eguna hurbil dugu; garbi diozozue zuen bihotza. »

G. M. Igandea han dugu Abendoaren laugarrena eta azkena. Aste bat oraino; eta, astearen buruan ikhusiko dugu Jainkoaren Semea, zerutik jautsia eta sorthua Bethleemeko heia batean. Bethleemeko ostalarietan ez bide zen lekhurik izan ez Andredena Mariarentzat, ez S. Josepherentzat. Iduri zaut, bertze orduz bezala, Jesus egun hautan, badabilala aterbe baten ondotik; gelditurik dagoela gure bihotzen aintzinean, gure bihotzari joka, han sartu nahiz. Bethleemeko ostalereen gisa, gogorrarena eginen othe diogu Jesusi eta gure bihotza hetsia atchikiko?

Egungo Ebangelioan bada, Jondoni Baptistak othoitzten ditu hertsatuki Juduak utz ditzatela beren bide makhurrak eta lehen bai lehen itzul ditela Jainkoaren alderat. Giristino guziek hitzematen dute bizia cambiatzea eta Jainkoaren alderat itzultzea. Nihork ez luke bere bekhatuan hil nahi. Bainan, gehienek gerorat igortzen dute bere bihur ondea. Zerurat heldu nahi lukete eta ez diote ukho egiten; bainan, ez lukete ere ukho egin nahi, oraino, lurreko atsegina. Eta hola, bekhatuan daude, lurreko atseginez gozatu nahiz, gerochago, noiz bait, combertitzeko chedearekin, gogoarekin.

O gizon maitea, badut beldurra ez othe duzun zure burua enganatzen.

Combertitzeko behar dire hirur gauza: astia, grazia, nahia. Eta luzatuz, gerorat utziz, nork agin ditzaitzkegu hirur gauza horiek?

I

Eta, lehenbizikorik, astia.

Gutarik bat bederak aithortzen du, nekherik gabe, zerurat joatekotan, combertitu behar dela. — « Gerochago, dio batek; nere gaztetasuna iragana izanen denean, eta hartaz ongi gozatu izanen [autanean] naizenean. — Gerochago, dio bertze batek; nere haurrak altchatuak izanen ditueztanean, eta, nehoni, zahartua izanen naizenean. Orduan nere salbamenduaz orhoituren naiz eta artha izanen dut. Orduan, itzuliko naiz Jainkoaren alderat.

Horra nola mintzo diren gutarik gehienak. Ez da gizon gazte bat, ez eta ere gizon zahar bat condatzen ez duenik gerokoaren gainean. Geroa, izanen othe dute? Aditzen nauzun, giristino luzakorra, gero hura izanen othe duzu? Nitaz dohan bezembatean, gero hura bazinduke. Bainan ez doha nitaz. Jainkoaz doha; eta Hura ichilik dago.... Mintzatu ere da eta hura zer deraukun erraiten: « Ne differas de « die in diem; ez dezazula igor egunetik egunera; ez « luza gerotik gerorat. »

Egiaz, deus ez da gutiago gureak denik nola geroa. Gero hura, behinere ikhusiko othe dugu? Menturaz bai; menturaz, ez. Luzatuz, gure arima, gure salbamendua, gure ethorkizuna, gure eternitatea, denen galtzeko hirriskuan gaude. Jainkoaren ganat itzuliz aldiz, denak bethierekotz irabazten ditugu.

Bainan, gure erran guziek baino, indar gehiago luke ikhus dezakezuna zure inguruan. Beha dezazue zure etchean, zure ahaideetan, zure adiskideetan, zure herritarretan: zombatek baitziozten, zuek bezala: « gero, gerochago itzuliko naiz. » Eta gero hura ez da ethorri heientzat. Hil dire uste gabean.

## II

Combertitzeko astia behar da; bainan ez da aski. Behar da grazia. _ Mintzo nintzautzuen demboran, sumatzen duzue, menturaz, zerbait iragaiten dena zuen bihotzetik; zerbait, han, bihotz hortan, erraiten derautzuena egiaz eta zuzenez mintzo naizela; errepikatzen derautzuena itzultzea, itzultzea Jainkoaren alderat. Zerbait hori ez da bertzerik grazia baizen. Grazia zautzue mintzo. Hari zenez, balia zaizte graziaz. Ezen grazia iragankor da. Iduri du udako calerna-uria, laster iragana. Lur landuek hartzen dute; ibiliak ez diren lurrek ez dute hartzen; gainetik iragaiten zaiote. Graziaz baliatu behar da iragaiten denean; behin iragan geroz, ez da erraiten berriz itzuliko dela.

Irakhurtzen dugu Liburu Sainduetan: « Vocavi « deithu izan zaitut, erraiten derauku Jainkoak, « oihu egin derautzut; eta nere oihua ez aditu « nahiz, beharriak hetsiak dauzkatzu. Extendi « manum. Eskua hedatu derautzut, lezearen zolatik « zu athera nahiz, eta bazterrerat ezarri duzu zure « burua. » Bekhatorosak ez ikhusia, ez entzuna egiten du. Noizbait, menturaz, nahiko du Jainkoaren ganat itzuli; emanen da oihuz Jainkoari; Jainkoaren ondotik ibiliren da. Et non invenietis. Beldur izaiteko da ez dezan Jainkoa hatzeman; graziaren

orena iragana delakotz.

Erranen duzu bekhatoros handi batzu saindu handi bilhakatu izan direla. Nahi dut. Egia da. Bainan egia ere da bekhatoros hek, Jainkoaren graziaz hunkituak izan direnetik, Jainkoaren ohiua bihotzean entzun dutenetik, luzamendurik gabe, itzuli direla Jainkoaren ganat. — Jainkoak ederra egin zuen Maria Madalena. Madalena gaizki baliatu zen bere edertasunaz eta hiri guzian ezagutua zen bekhatoros batentzat. Egun batez, ikhusten du Jesus. Ordu berean, zerbait iragaiten zaio bihotzetik. Hunkitua da; argitua da. Eta luzamendurik gabe, badoha Jesusen ganat. Eta haren oinetan ahuspez emanik, bere nigarrez bustitzen ditu Nausi dibinoaren maitearen oin dibinoak. Madalena, ordutik, combertitua zen.

Jondoni Paolo, oraino judua, bazabilhan, errabia bihotzean, bidez bide, giristinoen ondotik, hek gatheetan daraman eta hilaraazi beharrez. Egun batez, bidean zohalarik bere chede tzarretan, Jondoni Paolo, betbetan, zerutikako grazia batez hunkitua da. Ordu beretik combertitu zen. — Erraiten da biziaren azken orenean, azken hatsetan ere comberti daitekela. Egia da hori. Bainan San Bernartek dio ez duela ezagutzen ohoin ona baizen biziaren azken orenean funski combertitu izan denik: Eta erran behar da ohoin ona Calbariako mendian zela; haren ondoan hiltzen ari zela Jesu-Christo; eta gorritua izan zela Salbazalearen odolaz: Jainkoaren odolak hunkitu ziola bihotza eta erre zioztala bere huts eta hoben guziak.

Ai! G. M. bada eraiteko aroa, bada bihiaren altchatzekoa. Graziak ere badu bere aroa. Aro deno, balia gaiten graziaz Jainkoaren ganat itzultzeko.

## Azken solasas.

Egun hau dire, bereziki, grazíazko egunak. Zonbait egunen buruan, Jesus sorthuren da Bethleemeko heia batean. Gogoz egin dezagu Bethleemeko bidea..., Bethleemeko beila. Sar gaiten heia erromes hartan. Eta, han, zokho batean, mañatar batean ikhusiren dugu haur sorthu berria. Nigarrez dago hotzez; gauza guzien eskasian da. Haur hura, nor othe da? Nor den? Haur hura da zeru lurren egilea eta jabea? Nor den? Haur hura da gure Jainkoa. Ethorri da guri bere amodioaren erakhusteko. Chede hortan, apaldu da, penatu da, genamendu handitan ezarri du bere burua. Ikhas dezagun bada Jesusi gure amodioaren erakhustekotan, jakin behar dugla ere penatu eta genatu. Genamendurik gabe ez daitekela izan egiazko amodiorik.

Goazen, bada, haurrak, gazteak, familetako ait' amak; goazen Jesusen ganat. Gure beha dago Bethleemeko heian. Goazen guziak, justuak eta bekhatorosak, amodiozko chede berean, bekhatuna utzirik, Jesus maiteari aldera gure bihotzen emaiterat.

Halabiz.